

TOKIKOM Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko urtarrila • 311. alea

LAPURRETAK Kezka iturri

BERBALAGUN EGITASMOA otsailetik aurrera martxan

- Astean ordubetez euskaraz
- Euskaraz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak

Informazioa: Pil-pilean Euskara Elkarte
berbalaguna@pilpilean.com • 943 751 304



PIL-PILEAN



euskaltzateen
topagunea



SORALUZEKO
UDALA

Soraluzeko
aek



SORALUZEKO GIDA ABIAN DA

Herriko komertzio, denda txiki, taberna, ostalaritza, enpresa, erakunde publiko zein elkarteak batuko dituen gida prestatzen ari da pil-pilean euskara elkarteak Soraluzeko udalarekin elkarlanean.

Soraluzetarrentzat eta kanpotik etorri daitezkeen pertsonentzat intereseko gida osatua, eguneratua eta euskalduna egitea da gida honen helburu nagusia. Herriko denda, negozio, elkarte eta erakundeez gain herritarrentzat interesgarria izan daitezkeen informazioa ere jasoko du gidak: interes publikoko telefono zenbakiak, guardiako farmazien informazioa, udaletxetik eskeintzen diren zerbitzuen inguruko informazioa etab.

Hiru euskarri: papera, internet eta mugikorreko bertsioa

Gidak paperezko bertsio izango du eta hau Soraluzeko etxe eta enpresa guztietara banatuko da, dohanik. Horrez gain, interneten ere bere espazioa izango du gidak plaentxia.eus eta soraluze.eus web-guneetan argitaratuko deleko interneteko bertsioa. Bi web-guneetan egoteak zabalpena handitu egingo du kontuak hartuta plaentxia.eus web-guneak egunean 300-500 bisitari izaten dituela egunean gidaren presentzia interneten bermatuta dago. Gida digitalak gainera mugikorreko bertsioa izango du. Bertatik telefono

zenbakira zuzenean deitzeko aukera emango du.

Gidan agertzeko

Abendua geroztik Pil-pileaneko lan taldea atez-ate dabil gidaren ezaugarriak azaldu eta produktuan agertzeko aukera ematen. Zure negoziorekin ez badira kontaktuan jarri eta interesatuta baldin bazaude hau duzu bidea. publizitatea@pilpilean.com helbidera idatzi edo 686028946 (Gaizka Azkarate) mugikor zenbakira deituta. 90 euroren truke urtean, hiru euskarrietan agertzeko aukera dago eta eskeintza bereziki buruzko informazioa ere emango dizute.



OSTEGUNETAKO PELIKULAK

Gaueko 9:00etan Antzokian

UN DÍA PERFECTO OTSAILAK 4



Zuzendaria:
F. León de Aranoa
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2015
Iraupena: 126 min
Hizkuntza:
Gaztelania

EL DESCONOCIDO OTSAILAK 18



Zuzendaria:
Dani de la Torre
Herrialdea:
Espainia
Urtea: 2015
Iraupena: 91 min
Hizkuntza:
Gaztelania



**SORALUZEKO
UDALA**
Kultura Batzordea

20 urte, bada zeozer

Ander Garitanok eginiko marrazkia ekarri zuen azalean 1996an kaleratu zen lehenengo Pil-pilean aldizkariak. Soraluze-ko erdigunea marraztu zuen Anderrek; hortxe jarri zituen herritarrak aldizkaria banatzen eta irakurtzen, bakoitza bere modu eta txokoan. Aldizkari berria euskara bultzatzeko helburuarekin zetorrela adierazi zuen, Plaza Berrian pankarta kokatuz eta herritarrak jadanik fisikoki eskuartean zeukan aldizkaria beharrezkoa zela azpimarratuz. Horrelaxe etorri zen lehenengo alea eta ordutik... zenbat aldatu garen! Herria bera, Pil-pilean, zu eta ni eta beste guztiak...

Pil-pilean aldizkariari buruz gauza batzuk kontatu daitezke eta beste batzuk ez. Gauza batzuk zenbakiekin kontatu daitezke: 20 urte, 311 ale, 1.000ka aldizkari... Beste gauza batzuk berbaz edo hitzez kontatu daitezke: AEKko euskara ikasle eta irakasle talde batek ilusioz beterik kaleratu zuela lehenengo alea (eta ondorengoak), harrezkero soraluzetar asko eta askoren ekarpenekin (zenbatu ezin direnak) osatu direla aldizkarietako orrialdeak, gure herriaren historia soraluzetarrok idatzi, irudikatu eta irakurri dugula alez ale... Baina badaude kontatu ezin diren gauza asko ere; besteak beste, ez direlako orrialde honetan kabitzen, ezta aldizkari osoan ere (urte guzti hauetan aldizkaria-



Arianne Unamuno Loidi

“Dugu” diodanean “gu” zabala dut gogoan, Pil-pileanen 330 bazkideekin batera herriko euskalzale guztiok osatzen dugun “gu” zabal hori



ren bueltan sortu diren harremanak, ekimenak, gertaerak, iritziak...) edota hitzez edo zenbakiz ezin direlako adierazi 20 urteotan egile eta irakurleok bizi izan ditugun emozioak. Gure herriaren historiaren parte da Pil-pilean aldizkaria, gure parte.

Aldizkari izatetik elkarre ere izatera pasatu zen Pil-pilean eta bere jarduna hazi eta zabaldu du. Baina konturatu ote gara? Bada kigu zer egin dugun urte guzti hauetan? Zergatik eta zertarako egin dugun? Zer dakigu horretaz? Urteurrena aitzaki hartuta, datozen hilabeteotan Pil-pilean ezagutarazteko ekimenak antolatuko ditugu eta orain arte egindakoari errebaso zintzoa ematen ahaleginduko gara. Izan garenaz, egin dugunaz eta egin nahi dugunaz gogoeta konpartitzeko ahalgina egingo dugu, atek parez pare zabaltzeko eta zela ez, euskaltzaleon elkarrekin hogeita urte bete ditugula ospatzeko tarte ere hartuko dugu. Eta “dugu” diodanean “gu” zabala dut gogoan, Pil-pileanen 330 bazkideekin batera herriko euskalzale guztiok osatzen dugun “gu” zabal hori.

Harako hark zioen moduan, “atzeratu beharra dago aurrera zela egin jakiteko” eta 2016an horretantxe ahaleginduko gara. Martxoaren 5ean egingo dugun elkarrekin batzar nagusian izango dugu hurrengo hitzordua.

Hitzorduak

MARTXOAK 5, ZAPATUA

10:00 - 12:00

Batu sutondora

Pil-Pileanen urteko batzar nagusia

Herriko antzokian

12:30

Txotxxx!

Sagardotegira irteera

Izena emateko: 943 75 13 04ra deitu

edo idatzi koordinazioa@pilpilean.com helbidera.



PIL-PILEAN
EUSKARA ELKARTEA

1

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariaren esan eta iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Gaizka Azkarate **Diseinua:** Iñigo Urribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALLUZEO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Orain arteko **Agur gutuna**

Gazte
Asanblada

Zortzi hilabete dira asanblada berri bat sortu eta herriko gaztiak gaztetxera gerturatu asmoz, "Berrekiten-Berriketan" prozesua aurkeztu genduanetik. Pasa dan hamabostaldi kulturalan barruan egin zan aurrerantzia gaztetxian parte hartu nahi dutenen batzarra. Bertan elkartu zan asmo hori daukan jendia; zer egin eta horretarako nola antolatu garatzen dihardute geroztik.

Gaztetxian kudeaketa eskuz aldatu danez, egindako ibilbidia eta prozesua itxi, eta orain arteko Gazte Asanblada desegitia erabaki da. Aurrerantzia, erabiltzailien artian edo Gazte Asanblada berri batek kudeatuko dau Gaztetxia. Zeregin horretan dihardute zenbait gaztek, beraz, modu baten edo bestian, aurrerantzia be proposatu, antolatu eta egiteko lekua izaten jarraituko dau gaztetxiak. Eskerrak eta zorionak emon nahi dotseguz urtez-urte ibilbidia konpartitutako kidieri, herriko talde eta eragilieri, era batera edo bestera, gaztetxia kontutan hartu eta gaztetxia erabili zein disfrutatu dozuen eragile eta norbanakueri.

Belaunaldiz-belaunaldi, gazterixiak jolasten eta zirikatzen jarraituko dabelakuan, besarkada bana! Gaztetxian elkartuko gara!

Oharrak

IX. San Blas opilen lehiaketa

Otsailaren 3an 12:00etan Plaza Berrian

Antolatzailea: Udaleko kultura batzordea

Izen ematea: aurrez udaletxean (943753043) edota egunean bertan

1. saria: 50 euro

2. saria: 30 euro

3. saria: 20 euro



**TXURITXU
GOZOTEGIA**
Tel. 943 75 24 43

**Badatoz
San Blasak!**
Enkarguak hartzen ditugu

EGOTZA
Gazta freskoa
Gazta ondua
Errulo gazta

Ahuntz esne gordinez egindako gazta

Salmenta zuzena:
615 763 062

Nagore Martin Ugarte
Egotza Baserría
Soralue

Bittartetik



Agur Madaya!

"Ihes betea zilegi balitz, nunbait ba-
lego bakea, ni ez nintzake oinazearen
menpeko mixerablea (...) Lur hotz
batetan aldatutako, landare sustrai
gabea". Euskal kanta horrek ongi la-
burtzen du milaka siriarrak bizi duten
sufirimendua.

Siriako gerra zentzungabea hasi ze-
netik sei urte beteko direnean, mi-
laka haur eta familiak gero arte esan
diote beren herriari. Libano, Jorda-
nia, Turkia edo Irakeko errefuxiatuen
kanpamentuetan pilaturik bizi dira 4
milloi persona baino gehiago, noiz-
bait gerra hori bukatu eta haien he-
rrira itzuliko diren esperantzarekin.
Beste batzuk, gutxiengoa, miloi bat
inguruk, gerra luzatuz doan heinean
Europaruntz iristea lortu dute etorki-
zun baten bila.

Baina gehienak, hamairu milloitik
gora, oraindik Sirian bizi dira. Ma-
dayan, Deir ez-Zor, Idlib edo beste
hainbat setiatutako hiriburutan. Han
zaila da eraikinen bat osorik aurkitzea,
dena bonbardatu dute-eta. Sei milloi
baino gehiagok, beraien etxeak utzi
dituzte, eta asko dira beste familia
batzuekin bizi direnak, eskoletan edo
beste zenbait eraikin zibiletan. Hotzak
gogorturik gau elurtsuak nola hala pa-
satu behar dituzte, fuelik ez baita age-
ri inundik. Ur edangarria ere zaila da
aurkitzen, ur mozketak arma gisa maiz
erabili baitira Sirian. Janaria ere kostata
aurki daiteke. Lankide batek komenta-
tu zidan txakurrik eta katurik ez dela
ikusten, eta arratoiak ere aspaldian
desagertuta daudela. Gerraren seiga-
ren urteurrena beteko denean.

“Oso ondo pasatu dut”

Rosa Uribelarrea (Soraluze, 1963)

“Ludotekako Rosa” izateari laga dio 26 urteren ostean.



Rosa Uribelarrea.

Rosa 1989an hasi zen ludotekan lanean, lone Ariznabarretarekin batera, eta 26 urte hauetan herriko ume mordo batekin ibili da. Azken urteetan Nerea Bollarrekin aritu eta gero, Ludotekako lana laga berri du eta urteotan bizi izandakoaren ingurukoak kontatu dizkigu.

Zergatik laga duzu ludoteka. Jolas egiteaz nekatu zara ala?

Ez, ez da hori arrazoia. Nire bizitzan beste etapa bat hasteko garaia heldu da eta horregatik laga dut, ez aspertu naizelako.

“Ludoteka umeek gozatzeko gunea da”

Beraz, pozetik gehiago eman dizu neketik baino.

Bai. Oso ondo pasatu dut, urteak igaro dira ia igarri barik. Inoiz ere nekagarria bada, beti jolaserako prest egon behar duzulako baina, bestalde, umeen ondoan egotea ederra da, euren nahiak ezagutzera, jolaserako gustuak, mimoak...

Zer funtzio du ludotekak?

Batez ere umeek ondo pasatzea. Hara jolastera datoz, lasai egotera... Noski, sozializazioa, hizkuntza, baloreak eta enparauok ere lantzen dira, baina garrantzitsuena zorientasun puntu hori sentiaraztea da, zenbaitetan kanpoan falta dutena.

Alde handia somatu duzu lehengo umeen oraingoen artean?

Ez. Orain ere berdin berdin etortzen dira jolasteko gogoz, ez dakit zein dantza prestatu nahi dutela edo kantatu edo espektakulua montatu. Nahiz eta gaur egun ume batzuk mugikorrarekin etorri, bazterrean lagatzen dute eta lehen-goek bezala jolasten dute.

Eta jolasak ere berdinak dira?

Asko bai. Badira mahai jolas klasikoak beti funtzionatzen dutenak: Memory, partxisa, dominoa, xakea, Pictionary, Cluedo, Conecta 4... Eta bertsiio berriak: Risk, Estratego, Monopoly... Eraikitze jolasetan Legoak, jolas figuratiboetan panpinak, kotxeak, sukalketak eta abar. Baina konturatu gara orain gai orokorren inguruko galdera-erantzunen jolasek ez dutela ondo funtzionatzen, erantzunak ez dakizkitelako. Ez dakit zergatik den baina horrela da.

“Lehengo eta oraingo umeen artean ez dut somatzen aldaketa handirik”

Jokuren batekin nazkatuko zinen...

Hotel jokuarekin. Nik kokoteraino amaitu nuen...

Euskarazko jolasetan badago aukerarik?

Ez asko baina badira batzuk: Mihiluze, Euskal Herritik zehar, Jentil bidea, Nor da

nor... eta guk geuk euskaratutako batzuk ere bai: Tabu, Pizten bidez...

Eta genero rolei dagokienez?

Ez asko. Bakoitzak aukeratzen du zer nahi duen. Egia da oraindik ere mutilek gehiago jotzen dutela autoetara eta neskek panpinetara, baina gainerako jolasetan denak berdintsu.

“Badira klasikoak beti funtzionatzen dutenak: memori, partxisa, Lego, dominoa, xakea, margotzea...”

Orokorrean Ludotekaren bilakaera zela-lakoa izan da urteotan?

Ez da aldaketa nabarmenik izan dinamiketan baina bai datozen umeen adinari dagokionez. Adin muga jaitsi egin zen eta orain 4 urtekoak ere etortzen dira. Nagusietan 14 urte artekoak etortzen ziren baina orain 10etik gorakoak ez dira etortzen. Ez dakit zergatik den: lokalak, gaztetxokoa... Orain 12 urterekin “instira” joaten dira eta horrek ere badu eragina.

Bestalde, orain urte batzuk Ludotekaren zerbitzua diruz kobratzea erabaki zen, prezio sinbolikoa da baina horrek asistentzia eta ohituretan eragina izan du.



Hausnarketa prozesua Ludotekan eta Gaztetzokoan



losu, Martin eta Nerea, ludotekako hezitzaileak.

Martxoan hasi eta ekainera bitartean, Ludoteka eta Gaztetzoko zerbitzuaren gaineko hausnarketa prozesua zabalduko du Udalak, herriko neska mutilei begira etorkizunean antolatu beharreko aisialdi eskaintza zein izango den eta horretarako zein baliabide beharko diren ze-

hazteko. Hezitzaileek, gurasoek, haurrek, gazteek eta udaleko ordezkariak hartuko dute parte prozesuan. Besteak beste, bederatzi urtetik gorako gaztetzoei Ludoteka eta Gaztetzokoak eskaini beharreko aisialdi eskaintza izango gai nagusienetako bat.

Behin-behineko kontratazioa

Ludotekako langilea izan den Rosa Uribe-larreak abenduan lanpostua laga ostean, Udalak behin-behineko kontratazioak egitea erabaki du hausnarketa prozesua burutu bitartean. Kukumixo herriko aisialdi taldearekin (Pil-pilean) bideratu ditu kontratuak, zerbitzu-kontratu bidez. Beraz, uztailean bitartean, losu Elorza eta Martin Azkarate hezitzaileek jardungo dute ludotekan - egunean 4 eta asteen 8 orduko lanaldiarekin hurrenez hurren -, beti ere Pil-pileanen kontratupean, eta beronek ezarritako lan-baldintzetan.

FotoNotizia



Lau soraluzetar Bikain ziurtagiriaren banaketa-ekitaldian

Abenduaren 21ean euskararen Bikain ziurtagiria banatzeko ekitaldia egin zen Gasteizen. Bikain enpresa eta elkarteek euskararen erabilerari dagokionez lortutako maila adierazteko ziurtagiria da. Lau soraluzetar izan ziren aurtengo ekitaldian: Egoitz Unamuno Pil-pilean euskara elkartetik, Lino Alberdi Soraluze kooperatibatik, Lierni Santamaria Otezuri egoitzatik eta Izaskun Oregi Osakidetzatik. Lehendakariak, Kultura sailburuak eta Hizkuntza politikarako sailburuordeak banatu zituzten ziurtagiriak.

"Ametsen liburua" aurkeztuko dute otsailaren 4an

Jokin Urain mendarorarrak preso, exilioan edo deportatuta egon diren lauhun persona baino gehiagoren "ametsak" jasotzen dituen liburua osatu du. Egileak berak otsailaren 4an, eguena, aurkeztuko du liburua kiroldegiko erakusketa aretoan, arratsaldeko 19:00etan.



Arizaga baserria irabazle Donostian, Arrasate eta Zestoan

Arizaga baserriak jarritako barazki-postuek lehenengo sariak eskuratu dituzte Donostia eta Arrasateko San Tomas eguneko azoketan eta baita Zestoakoan ere. Gainera, Elgoibarko Gabon Zaharretako azokan ere hirugarren postua eskuratu zuen Arizaga baserriaren postuak. Herrian bertan, Gaztañerre azokan, bigarren saria jaso zuen aurten.



Etxabe Harategia
Euskal txahalkia Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

TRISKEL
Herboristeria Parafarmazia Dietetika
Orduetgia
Astelohenetik ostiralera: 09:00-13:30 / 16:30-20:30
Larunbatetarako: 10:00-13:00
Telefona: 943 50 78 50

140 Herritar presoan eta iheslarien eskubideen alde

Hiru autobusetan 140 herritar inguru joan ziren urtarrilaren 9an presoan eta iheslarien aldeko Sare herritarrak antolatuta "Mugi daitezzen harriak" le-mapean Bilbon egin zen manifestazioa. Gabonetan hainbat herritarren testigantzak jasotzen zituen bideoa kaleratu eta elkarretaratzea egin zuten abenduaren 31n. Sarek jakinarazi du datozen hilabeteetan preso eta iheslarien aldeko beste kanpaina bat jarriko duela martxan.



Gure esku dagoren bazkide kanpaina

Soraluzeko Gure esku dagok erabakitze eskubidearen aldeko mugimendua finantzatzen lagunduko duten bazkideak lortzeko kanpainari ekin dio. 150 soraluzetarren bazkide-tza lortzea hartu dute helburutzat, hileroko eta bi urtez 5€-ko ekarpena egingo dutenak. Horretarako, hurrengo 5 barixakuetan, 19:00etatik 21:00etara, mahaia jarriko dute Kontzejupean eta Iratxo goxodendan ere eman ahal izango da izena. Bestalde, abenduaren 26rako antolatu eta lehor-teagatik bertan behera geratu zen Ametsen kriseiluaren ekimenerako data jarri dute: martxoaren 12an, arratsaldeko 7etan, Zubi Nagusian izango da.



4.146.622 euroko aurrekontua egitasmo "txikietara" bideratua

Aurtengo aurrekontuak iazkoak baino 800.000 euro gutxiago izango ditu eta inbertsioetarako izango diren 225.000 euroak egitasmo "txikietara" bideratuko dira. Aurrekontua EAJren eta PSE-EEren aldeko sei bozkarekin onartu da. EH Bilduk bi abstentzio eta kontrako bi bozka eman zituen.



Bozketa unea udalbatzarrean.

Alkateak adierazi du "iazko ildoari jarraitpena ematen dioten aurrekontuak" direla, "Alkarrekin zehaztutako oinarriko egitasmoak" jasotzen dituenak. Alkateak esan du ez dela mailegurik eskatuko eta diru-laguntzei dagokienez, zuhurtziaz jokatu dutela jakinarazi zuen. Inbertsioetarako 225.000 euro izango dira, egitasmo "txikiak" garatzera bideratuko direnak. Egitasmo horietatik hiru EH Bilduk egindako eskariari erantzunez onartu ditu udal gobernauk.

Horrekin batera, beste bi partida: bate-tik, bizikidetzat lantzeko 1.000€ko partida izendatu da, eta, bestetik, udal-langileen soldata %1 igotzeko gorde diren 11.000€.

EH Bilduren ezohiko formula

EH Bilduk ezohiko formula erabili zuen aurrekontuak bozkatzeko orduan, bi abstentzio eta kontrako bozka bi eman zituen (zinegotzi batek ezin izan zuen udalbatzarrean joan). Abstentzioarekin udal gobernauk zenbait inbertsio adosteko erakutsi duen jarrera eskertu nahi izan zutela

adierazi zuen Roke Akizuk, eta kontrako bozka berriz, alkatearen "gehiegizko" soldatarekin eta "eguneroko beharretara gehiegi bideratutako kudeaketarekin" ados ez daudelako eman dituztela esan zuen Unai Larreategik.

Aurtengo inbertsio nagusiak:

- 36.300 € Olaldeko plana.
- 23.000 € Baserritarren eskaerak.
- 19.000 € Karpa.
- 19.000 € Ikastetxeko ataria.
- 16.772 € Hezkuntza proiektua.
- 15.000 € Kiroldagiko inbertsioak.
- 15.000 € Etxebizitza plana (EH Bilduren eskariz).
- 10.000 € Smarth proiektua (EH Bilduren eskariz).
- 10.000 € Futbol zelaiako kautxoak.
- 6.000 € Antzokia egokitzeko.
- 5.710 € Udaltzaingoaren komunikazioa.
- 4.000 € Industria eta mertaritzatza gida.
- 3.000 € Bidegorrian bizikletak garbitzeko makina (EH Bilduren eskariz).



LAPURRETAK

Larritzeko motiborik ba ote?

Udazkenetik hona herrian gertatu diren lapurretek kezka handia sortu dute herritarren artean. Arduradun publiko eta aditu batzuen iritziak ekarri ditugu orriotara.

Azken asteotan lapurreten gaia bihurtu da herriko kezka nagusienerako bat. Uda ostean piztu zen kezka, erdialdeko taberna eta komertzioetan gauzez eta modu jarraian gertatu ziren lapurretak zirela-eta. Kezka horren adierazgarri izan ziren Bizikaleko merkatariak herritarren artean batu zituzten 1250 sinadurak. Udalak sinadurak Ertzantzari helarazi eta Ertzantzak bere presentzia handitu zuen, baina harrezkero lapurreta gehiago gertatu dira. Bestalde, lapurretak etxebizitzetan gertatu izanak are eta gehiago kezkatu ditu herritar asko. Azkenenego lapurreta urtarrilaren 13an gertatu zen Santa Ana kalean eta bestetan bezala, urrezko objektuak eta bitxiak ohostu zituzten.

Lasaitasunerako deia

Guk zenbait aditurekin hitz egin dugu gaiaz eta denek lasai egoteko mezua helarazi nahi izan diete herritarrei. Guztiek azpimarratu dute datuek diotena eta piztu den alarma sozialaren neurria ez datozela bat. Ertzantzak eta Udaltzaingoak egingo duten lanarekin batera, herritarrei euren esku dauden neurriak hartzeko gomendioa egin diete, zentzunez eta alarmerik sortu gabe. Bestalde, hainbat herritarrek sare sozialetan etorkinen aurkako komentario iraingarri eta xenofoboak egin dituzte eta aditu zein arduradun politiko guztiek adierazi dute komentario eta jarrera horiek lekuz kanpo daudela.

Lapurretena, arazo sozial guztiak bezala, mila ertz dituen gaia da, konplexua eta delikatu. Iraganean bezala etorkizunean ere kezka iturri izango da, baina behar baino gehiago kezkatzeak ez dio inori onik egiten.



DATUAK (Iturria: Ertzantza)

Delitu larrien kopurua Deba-Urola barrutiko herrietan (2015)

11 Antzuola	63 Bergara	31 Legazpi	47 Urrretxu
3 Aramaio	15 Elgeta	1 Gatzaga	70 Zumarraga
25 Aretxabaleta	15 Eskoriatza	33 Oñati	
89 Arrasate	12 Ezkio Itxaso	21 Soraluze	

Delituen tasa 1.000 biztanleko (2015)

26,77	Debagoiena-Urola (Soraluze Debagoiena-Urola barrutian dago)
32,89	Gipuzkoa
39,29	EAE

Delituen tasa 1.000 biztanleko (2015)

0	Hilketak
0	Askatasun sexualaren aurkako delitu larriak
1	Etxeko / genero indarkeria
1	Indarkeriadun lapurretak / izua eraginda
5	Lapurretak etxeetan
3	Lapurretak enpresetan
11	Espazio itxietan



“Herritarrei kolaborazioa eskatzen diegu”

Iker Aldazabal
Alkatea

“Bereziki kezkatzen gaituen gaia da, batez ere, etxebizitzetan gertatu diren lapurretena. Buru-belarri gabiltza egoera honi buelta eman nahian. Lehenengo momentutik Ertzaintza, Udaltzaingoa eta Udalaren artean koordinazio bideak zabalik izan dira eta eskatu dugu Ertzaintzaren presentzia areagotzeko. Otsailaren hasierarako hitzaldi bat prestatzen dihardugu. Herritarrei kolaborazioa eskatzen diegu, guztion artean lapurreta kasu hauek eragozteko. Mezu xenofoboeri dagokionez, arriskutsuak dira eta erro-rik moztu behar dira.”



“Zerbait susmagarria ikusitakoan, deitu”

Gotzon Odriozola
Udaltzainburua

“Dudarik barik gai garrantzitsua da baina beste herri batzuekin konparatuta gurean gertatzen dena ez da larritzeko bestekoa.

Gure presentzia ziurtagarria dago eta Ertzaintzarekin informazio-trukea ere bai. Poliziaren presentzia beharrezkoa da baina ez da nahikoa lapurretak eragozteko, herritarren laguntza ezinbestekoa da. Zerbait susmagarria ikusten dutenean dei diezagutela, arazoa dagoen lekura joan eta zer gertatzen den argitzeko.”



“Lapurreten ardura ezin da biktimen gain jarri”


Lorea de Castro
EH Bilduko zinegotzia

“Azken hilabeteotako lapurretek alarma handia sortu dute. Babesgabetasun sententzia eta frustrazioa hor daude. Komertzio batzuen kasuan, gainera, errepikatu egin dira lapurretak, inpuniate sententzia biderkatuz.

Garrantzitsua da herritarrok segurtasun neurri batzuk hartzea, eta aholkuak ematea ere ondo dago, baina ezin da biktimaren gain jarri lapurretaren ardura.

Herritarrei eskatu nahi diegu ez daitezela ahula kulpabilizatzeko tranpan erori. Lapurrak “kanpokoak” edo “bertakoak” izan daitezke, baina hango edo hemengo izateak ez du inor gaizkile bihurtzen.”

Arriskuaren beldur



Martin Luque
Kriminologoa

Azken boladan jakinekora da gure inguruan hainbat lapurreta izan direla etxebizitzetan zein komertzio- eta logikoa da horrek mesfidantza eta beldurra sortu izana gure artean. Izan ere, egia da etxeetan (eta saltokietan) gertatzen diren delituak nahiko ugariak direla Euskal Autonomia Erkidegoan, baita estatu mailan ere. Hala ere, azken urteotan lapurreta kopurua gutxitu egin da Ertzaintzaren eta Espainiako Barne Ministerioaren datuen arabera. Gaine-

ra, aipatu beharra dago Espainia dela Europa mailan lapurretengatik preso kopururik altuena duen estatu. Hori guztia jakinda, prebentzio-planak eta segurtasun gorputzen ekinbideak bide onean doazela esan daiteke. Lasai egon gaitzke, beraz.

“Telebistak segurtasunarekiko interesa izugarri handitu du eta baita delituarekiko beldurra ere”

Dena den, gure arteko kezka handitzen joan da azken aldian. Zer dela eta? Kriminologiaren ikuspuntutik, bi kontu bereizi behar dira: batetik, segurtasun efektiboa eta bestetik segurtasun sententzia.

Segurtasun efektiboaren egoera salaketa, juicio eta espetxeratu kopuruetan oinarrituta baloratzen da. Baina nahiz eta kopuru horiek oso txikiak izan, beti egongo da delinkuentzia kopuru txiki bat. Horregatik, garrantzitsua da oso delitu gutxi egonda ere prebentzio-plan landuak egitea, segurtasun gorputzen aktibitatea ondo kudeatzea, herritarrei

laguntza bermatzea, delitugileak harra-patzeko aukerak handitzea, kaleen azpiegiturak hobetzea...

“Garrantzitsua da oso delitu gutxi egonda ere prebentzio-plan landuak egitea”

Segurtasun sententziak ostera ez du zerikusi zuzenik estatistikekin. Azken urteotan herritarren segurtasunarekiko interesa nabarmen handitu da, eguneko 24 orduetan ikusten ditugu gai horrekin lotutako kontuak telebistan, irradian, zinematan, etab. Telebistak delituaren inguruko albisteak, debateak, iritziak eta aktualitate kontuak ikusarazten ditu behin eta berriz. Horrek gure segurtasunarekiko interesa izugarri handitu du eta baita delituarekiko beldurra ere. Baina gure inguruan ikusi ditugun kriminalitate kasuak ezin dira horiekin nahastu. Eten beharreko, eta eten ahal diren egoera tamalgarriak dira, baina, momentuz, urruti daude gure bizimodua alda dezaketen kriminalitate-olatu kasuak izatetik.

“Ertzantzatik lasaitasun mezua zabaldu nahi diegu herritarrei”

Iñigo Loiola

Bergarako komisaldegiko Ertzainburua



Iñigo Loiola Bergarako komisaldegiko bulegoan.

Soraluze Ertzantzaren Bergarako komisaldegia barrutipean dago eta bertako ertzainburuarekin berba egin dugu lapurreten gaiaren inguruan.

Zein balorazio egiten duzue azkenengo asteotan Soraluzen gertatu den lapurreta-oldearen inguruan?

Azkenengo asteotan Soraluzen gertatu dena ezin da lapurreta-oldetzat hartu, baina onartu behar dugu herritarren artean alarma piztu duela. Sare sozialek asko laguntzen dute horretan, ustezko delitugileen presentziaren berri ematen duten informazio faltsuek esaterako.

Datuen arabera, Soraluzeko segurtasun erreala beste leku askotakoa baino hobea da. Eta Soraluzeko zein Debagoiena-Urolako ertzain-etxeari dagoen eremuan, delinkuentzia-indizeak Gipuzkoako lurraldeko baxuenak dira.

Hala ere, prebentzio-planak hobetzeko lanean jarraitzen dugu.

1250 Herritarren sinadura batu ziren herrian Ertzantzari presentzia areagotu zezala eskatuz. Eskaera horri erantzun diozue?

Dagoeneko presentzia areagotu da baina etorkizunean gehiago aregotzeko plan bat lantzen dihardugu barruti osoari begira. Horrekin batera Soraluzeko Udaltzaingoarekin koordinazioa areagotu dugu eta udalarekin segurtasunaren inguruko hitzaldi informatibo bat prestatzen dihardugu.

Soraluzeko lapurreten kasuan atxiloturik izan da?

Oraindik ez. Martxan dauden ikerketen eta batutako arrastoen analisi eta emaitzen zain gaude. Bere denbora behar badu ere, arrasto horiek eta kasu batzue-

tan DNA azterketek lapurreten egileak identifikatzeko balio izaten dute, pentsa daitekeena baino gehiagotan.

Lapurreten egiletza etorkinei egotearen inguruan zein iritzi duzu?

Jendeak jakin behar luke hemen gertatzen diren lapurreta gehienak handi bat bertako jendeak egin ohi ditu.

Zein mezu helarazi nahiko zenioke herritarrei?

Lasai egoteko Ertzantzak bere egitekoa betetzen duelako. Segurtasunaren arduragusia gurea da baina, era berean, herritar bakoitzak ere bere ardura du. Lapurreta txikiak egiten dituztenek sartzeko errazena diren etxebizitza, garaje eta saltokiak aukeratzen dituzte.

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

arrunta
dekoraziokoa
industrialia

Tel. 943 75 13 24
Mug. 652 77 70 30

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERRIK ASMO PLENTZIETARAKI
OGIEN ELANDEKO KONPANTZAGETIKO

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08

Motzean

25 urte parapenteari lotuta

Iñigo Gabiria (1970) Elorriotarrak parapenteari lotuta daramatzen 25 urteetan bizitakoari buruz hitz egin zuen Gaztetxean. Solasaldia hiru ikus-entzunezkoekin osatu zuen: "Parapentea eta ni", "Belagua 2015" eta "Red Bull X-Alps 2013". Bideo bakoitzaren ostean entzuleen galderei erantzuten eta haien jakinmina asetzen ahalegin du zen. Hainbat herritako 30 lagun gerturatu ziren Gaztetxera.



Sora "B" k Ikasberri hartuko du Ezozin

Sora "B" kopako lidertza berreskuratzen saiatuko da zapatuan 16:30etan zaleen aurrean. Sora "A" k Usurbilen etxean jokatu du zapatuan 15:30etan. Infantilek Ikasberri "B" hartuko dute Ezozin 11:00etan eta Jubenilek Urkiren kontra jardungo dute Eibarren biek zapatuan. Argazkia: Jokin Ruiz.



Pala eta pelota partiduak zapatuan

Arratsaldeko 16:30etan hasiko da jaialdia zapatuan soraluzeko kiroldegian. Aldapek Isasmendi hartuko du buruz-buru; ostean, Urko-Jonay eta Mikel-Aimar gazteek Legazpi eta Azpeitiko pilotarien kontra jardungo dute eta jaialdia amaitzeko Ximun eta Asierrek Elgoibarko bikotearen aurka jokatu dute pala partidua.

Hitzaldiak, mendi eta eski irteerak 2016rako

Xabier Arribillaga, Gorka Tardio eta Xabier Tardio dira Soraluze menditaldeko kideak eta 4 urte daramatzate herrian mendizaletasuna zabaltzearen alde lanean.

Lau urte igaro dira Azkorbe anaiak, Pablo Galarraga, Josune Unamuno eta beste batzuk utzitako mendi-taldearen ardura hartu zutenetik. Ekimen asko antolatzeko ilusioarekin heldu zioten erronkari eta lehen urteetan kostatzen bazitzairen ere, urte-urte gero eta programazio anitz eta interesgarriagoa antolatzen dihardute.

Herritarren interesa asetzea helburu

Herritarrentzat interesgarriak diren ekimenak antolatzea da mendi-taldearen helburu nagusia. Horrela, jendearen parte hartzea areagotzea, mendira taldean joateko ohitura mantentzea, mendian ibiltzen ikastea, jendea ezagutzea eta naturarekiko begirunea bultzatzea lortu nahi dute. Gainera, nahi duenarentzat mendiko materiala, mendien inguruko informazioa eta liburutegi txiki bat ere eskuragarri dago.

Funtzionamendua eta antolaketa

Urte hasieran Soraluzeko mendi-taldeen bazkideen mendiko lizentziak bideratzen ditu. Mendian federatuta egoteko ezinbestekoa da mendi-talde bateko kide izatea eta horiek dira lizentziak bideratu behar dituztenak. Badira urtero antolatzen dituzten mendi-lasterketa batzuk, Marraskilo Tour eta Iñaki Ruiz-en omeneko esaterako; horiez gain, inguruko pertsonen iradokizunetan oinarrituta antolatzen dute urteroko programazioa. Elgoibarko Morkaiko eta Eibarko Club Deportivo mendi-taldeen batera urtean bost irteera antolatzen dituzte eta baita ikastaroak ere.

Otsailean Felipe Uriarte

Urtarrila eta apirila bitartean mendiari lotutako hainbat kirolen inguruko hitzaldiak antolatu ditu Soraluzeko mendi-taldek. Otsailaren 10ean Felipe Uriarte etorriko da, Everest mendira igo zen Euskal Herriko lehen espedizioko kidea, bere esperientziari



Mendi taldeko kideak.

buruz hitz egitera arratsaldeko 19:00etan antzokian. Gainontzeko hitzaldiak Gaztetxean izango dira. Hitzaldiez gain, aurten eski irteera bat ere antolatuko dute.

Harremanetarako

Soraluzeko mendi-taldeko kideak ostegunero batzen dira Pil-pilean Euskara elkar-tearekin partekatzen duten bulegoan, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Bestela deitu 943751403 zenbakira edo bidali e-posta honako helbide honetara: soraluzekomendialdea@gmail.com.

2016KO EGITARUA

Otsailak 10 Felipe Uriarte, mendizaletasunaz solasaldia 19:30etan antzokian

Otsailak 13-14 Glaziare alpinismo ikastaroa
Martxoak 9 Iñigo Andola, *pioletekin dantzatzen* ikus-entzunezkoa 19:30etan Gaztetxean

Martxoak 11-13 Mendiko eski irteera, Respomuso aterpetxea

Apirilak 14 Ekaitz Maiz eskaladari buruzko ikus-entzunezkoa 19:30etan Gaztetxean

Apirilak 23-24 Arroil-jaietsiera Guarara (Hueska) irteera

Ekainak 18-19 Senda de Camilera irteera

Uztailak 10 Iñaki Ruiz-en omenezko mendi-lasterketa

Irailak 17 Marraskilo Tour

Irailak 24-25 Astun-Portaletera irteera

Urriak 29 Somiedo (Asturiasera) irteera

Kontulan 
aholkularitza

Errenta aitortpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasiak
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konturazio/diskuzioak • Kontabilitateak • etab...

Santa Ana 13 - 1. csk. 20590 Sorluze - Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 91 82

MENDIZABAL
okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalobarren, 10
Tel. 943 75 20 91

Baltegieta, 6
Tel. 943 75 13 99



“Zinea eta telebista”, aratosteetan mozorrotzeko gaia



Arraindegiko langileak mozorrotuta iaz.

Aratosteak antolatzeko udaletxean batzen den batzordeak zinea eta telebista mozorrotzeko gaitzat hartzea proposatu du aurten mozorrotzeko gai proposamen moduan, bai taberna eta saltokietarako eta baita herritarrendako ere.




Egitarauari dagokionez, Euskal Aratosteek emango diote hasiera otsailaren 5ean, arratsaldeko 15:00etatik aurrera egingo duten kalejirarekin. Zapatu goizean umeendako jolasak izango dira karpn eta arratsaldean *Haitzama* taldearekin dantzaldia. Martitzenean, berriz, umeendako dantza-lehiaketa eta Lisker taldearekin dantzaldia izango dira.

Mozorro-lehiaketa

Joan zen urtean moduan, aurten ere mozorrorik onenak saritzeko lehiaketa antolatu dute. Lehiaketan parte hartzeko Kontzejupeko PHOTOCALLEAN taldeko argazkia egin eta WhatsApp bidez bidali beharko da 605706086 zenbakira. Bi talderik onenak sarituko dira eta herri-tarrek Plaentxia.eusen jasotako bozken arabera sarituko dira bi talderik onenak. Sari-banaketa martitzenean egingo da, 20:00etan Karpan.

Gazteluperen Agur Festa

Gaztelupe tabernak bi urteko jardun kulturalari agur esateko festa antolatu zuten Gurtarrilaren 9an. The oso basatis taldeak eta Elvis Caino musika jartzaileak girotu zuten agurreko jaialdia. Otsailaren 14an Txus Blues eta Jose Bluefinger taldeak kontzertua eskeiniko du terrazan.



Motzean

Feminismoari buruzko artela-nekin erakusketa antolatuko du Korner Morea kolektiboak

Korner Morea kolektiboko kideek inguruko artisten argazki eta margolanak biltzeko deialdia egin dute, mugimendu feministaren aldarrikapenak ikustarazteko martxorako antolatu asmo duten erakusketa osatzeko. Erakusketak “Jarri martxan zure garunaren eskuin hemisferioa betaurreko moreekin” izenburua izango du. Lanak entregatzeko epea martxoaren 2ra artekoa da. Erakusketa martxoaren 21etik aurrera jarriko dute ikusgai.

ARTE FEMINISTA ERAKUSKETA




Calipso, literatura eta kafea uztartuta

Angel Mario Fernandez idazleak gidatuta, Calipso izeneko literatur-taldea sortu dute herrian. “Idazteko eta irakurtzeko grina barruan dramaten pertsonak” batu eta elkarrekin “literatura ona” trukatzea dute helburu. Lehenengo bilera Ufala tabernan egin zuten urtarrilaren hasieran eta Soraluze, Eibar eta Arrasateko hainbat lagun batu ziren. Etorbizunean hiru astean behin batzeko asmoa dute.



Zorion agurrak



Hodei Valdivieso Argarate
Urtarrilaren 9an 12 urte.
Zorionak maite zaitugun
denon partez!!!!



Alain Lopez Pellitero
Urtarrilaren 20an 10 urte.
Zorionak!! Askok maite
zaitugu. Muxu asko zure
gurasoen partez.



Amaia Hernandez
Urtarrila 3an 11 urte.
Zorionak wapetona!!!
Segi horrela!!!
Muxu asko. Etxekoak.



Jon Agirre
Abenduaren 5ean 36 urte.
Zorionak!
Etxekoen partez.



Iker De Los Santos Perez
Urtarrilaren 2an 9 urte.
Zorionak txapeldun!!
Muxu haundi bat, etxeko
guztionez partez.



Joxe Lizarralde eta Magdalena Zubizarreta
Otsailaren 9an 60.ezkon urteurrena.
Zorionak!
Loiak eta etxekoak.




Nerea Atxotegi Goenaga
Urtarrilaren 18an 17 urte
Zorionak eta muxu haundi
bat! Etxekuen partez



Esther Cruz Iglesias
Urtarrilaren 21ean
Hezkuntza arloko
doktoregoa lortu duzu.
Zorionak! Etxekoak.



Xabat Deza
Abenduaren 27an 12 urte
Zorionak eta muxu haundi
bat. Argateko familixian
partez!



Peio Arantzeta eta Imanol Agirre
Urtarrilaren 20an eta 21ean, 12 eta 10 urte
Etxeko mutil haundiak! Ondo ibili eta ondo biz!
Patxo eta besarkadak!



Ander eta Naroa Agirregomezkorta
Otsailak 9 eta 8an 5 eta 3 urte
Zorionak bitxitos eta patxo haundi bat.
Familixa danan partez.



Diego Rizzo
7 urte otsailaren 5ean.
Zorionak txapeldun! Muxuak
eta besarkadak zure guraso
eta amamaren partetik.



Unai Laskurain
Urtarrilaren 20an 6 urte
Muxutxo bat!
Etxekoen partez.



Joanes Iñurrieta eta Iosu Arriola
Urtarrilaren 25ean eta 30ean 25 urte.
Zorionak kuadrilakuen partez!

Urte askotarako!

Zoriondu laqunak eta senitartekoak Pil-pileanen:

- Whatsapp **605706086** zenbakira.
- Mezua **aldizkaria@pilpilean.com** helbidera.
- Webguneko **www.plaentxia.eus/zerbitzuak/zorion-agurrak** helbidean sartu.
- Lokalera ekarri: 10.30etik 13:00etara bitartean.

Jaiotakoak eta hildakoak



EDURTZA
taberna

Pintxoak eta razioak

Santa Ana, 18
Tel 943 75 13 89

Elizepe
Hertz klinika

Gere zerbitzuak:
- Ortodontzia kirurgikoa
- Implanteak

DIVANINGEO BERRIKUETELA
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA
KONPROBESORIK GABEKO AURRERONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 945 75 25 67
Elizburu, 3 beheko. Sorlaize

KLB6

Kupoi hau moztuta deskontua dendan

KLB6
Sara Jantziak

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebrea
BIOMASA ETA EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

ba al zenekien...



Iturria: soraluzeruidian.wordpress.com

...Erregetxea zena ia soraluzetar guztiak finantzatu zutela?

XIX. mende hasieran orduko arma-biltegi zaharra oso gaizki zegoela-eta, Espainiako gobernuak bertako jarduna Eibarrera aldatzeko asmoa adierazi zuen. Soraluzeko Udalak 1803. urtean herrian Erregetxe berria egitea onartu zuen herriko armagintza jardunaren mesedetan. Eraikin berriak miloi bat erreale pasatxoko aurrekontua izan zuen, eta ordaintzeko herri guztia hipotekatu zen: etxeak, baserriak, zuhaitzak, errota, olak...

Gehiago jakiteko: www.sorapedia.eus

Oharra: Sorapedia egitasmoa bultzatzen diharduen Alkarrekineko Herri-identitatea lan-taldeak Erregetxea nolakoa zen ikusteko erreplika digitala sareratu du. Oscar Perezek egindako erreplikak dagoeneko 800 ikustalditik gora izan ditu Youtuben.



JOKIN ZABALA MORILLO
HERIOTZAREN II. URTEURRENEAN

*"Gure ondotik joan zinen
Jokin
baina beti egongo zara
gure bihotzetan"*

Sendikoak

ESKELAK JARTZEKO: 605 706 086

Hilaren azken barixakuan argitaratuko da aldizkarian.

Eskelaren prezioa:

30 € (txikia)

60 € (luzea)



**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalik eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.



Murrizte kanpaina

Poltsa berrerabilgarria edo tupperra erabiltzen dutenen artean hileroko 25€ko bi erosketa sari zozketatuko dira



SORALUZEROKO UDALA



Irabazleak:



Manoli Rivas



Meli Plata

Euskalzaletasunaren alde:



PASCUAL TXURRUKA, S.L.



Pot. Industrial Mendiola 13,
20590 SORALUZE Gipuzkoa

Isa Camacho
Tel/Whatsapp: 655 74 81 35

Iraitz Ibarzabal
Tel/Whatsapp: 688 66 56 27

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK

Tel. 943 75 18 81
belaitzhornigaiak@gmail.com



Eskerrik asko 2015. urtean Pil-pilean herri komunikabidean iragarle izatearren

Albisua
Aras
Armendi
Batzoki taberna
Belarrak loradenda
Bolia taberna
Bolintxo okindegia
Casa del Pueblo taberna
Cruz elektrizitatea
Edurtza taberna
Izagirre igeltseritza
Elizpe hortz klinika
Etxabe harategia
Gaztelupe taberna
Gila taberna
Iratxo gozotegia
Jabier Alberdi harategia
Javier Alonso hortz klinika
Juan Manuel Arruabarrena pinturak
Juan Mari Arraindegia

Kiru Muntaiak
Kontulan aholkularitza
Kontsumo Kooperatiba
Laibi elektrizitatea
Mabe ile apaindegia
Mendata taberna
Mendizabal okindegia
MGS aseguruak
Osuma Basolanak
Pascual Txurruka
Ion Murgizu pinturak
San Andres iturgintza
Somabe
Soraluce
Triskel herboristeria
Txoko taberna
Txuritu gozotegia
Txurruka jatetxea
Criado fruitategia
Soraluzeko Udala
KLB6 arropa denda

Egotza ahuntz gazta
Oroilore hileta zerbitzuak
Mapfre aseguruak
Negabi ile apaindegia
Generali aseguruak
Soraluzeko EPA
Tokikom tokiko hedabideen elkarte
Bizikale Soraluzeko komertzioen elkarte
Soraluzeko Sare
Soraluzeko Gure Esku Dago
Soraluzeko EH Bildu
Soraluzeko EAJ
Arranoa
Bolintxo okindegia
AEK Euskaltegia
Soraluzeko Udala
Musika eskola
Arane Kiroldedia
Gipuzkoako aldundia



DES KON TUAK

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskaintzen dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **urtarrilaren 30etik otsailaren 13ra** arte.

ETXABE HARATEGIA

Okela pikatua eta gisaturako okela



Deskontua **%15**



Izena: _____

Tel.: _____

BELARRAK LORADENDA

Erregina-jelea



Deskontua **%20**



Izena: _____

Tel.: _____

MARISA ILE-APAINDEGIA

Kolorea + moztu + orraztu

Tel.: 943 75 22 43



43€ Lehen 48,25€ Deskontua **%11**



Izena: _____

Tel.: _____

GAZTELUPE TABERNA

Kafea + zuku naturala + bizkotxoa



3€ Lehen 3,6€ Deskontua **%17**



Izena: _____

Tel.: _____

zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Azken zozketaren irabazlea: Rosarito Zabala

NIK,
HERRIAN

